



Arartekoaren 2016S-799-16 Ebazpena, 2016ko abenduaren 12koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari iradokitzen zaio egoitza bateko plazaren eskaera ezestea xedatu duen ebazpena berrikusteko eta dagozkion kudeaketak egiteko egoitza-zerbitzura sartzeko prozedura izapidetzen amaitzeko.

Aurrekariak

Herritar batek erakunde honetara jo du Arartekoaren esku-hartzea eskatzeko; hala, adierazi du ez dagoela ados Bizkaiko Foru Aldundiaren ebazpenarekin. Izan ere, horren bidez, bere izekok mendeko pertsonentzako egoitzen foru zerbitzu publikora sartzeko egindako eskaera atzera egindakotzat jotzea erabaki da.

Kexagileak adierazi duen bezala, 2015eko udan, bere izekori mendeko pertsonaren izaera aitortu zitzaion, II mailakoa. Une hartan, zegozkion zerbitzu eta prestazioen berri eman zioten. Zerbitzu horiek ukatu zituen, telelaguntza zerbitzua izan ezik, jadanik erabiltzen zuena. Urte horretako irailean, bere osasuna nabarmen narriatu ostean, bere izeko egoitza pribatu batera joan zen; una hartan, bere ilobek foru zerbitzuari informazioa eskatu zioten sare publikoko egoitza batean plaza bat eskatzeko prozeduraren inguruan. Izan ere, uztailleko mendekotasunaren balorazioan, eta titularrak egoitza-zerbitzua baliatu ez nahi zuenez, ez zieten azaldu. Saileko teknikari batzuk bere izeko zegoen egoitzara joan ziren eta horrek egoitza bateko plazaren eskaera sinatu zuen.

Abenduaren 10ean, Foru Aginduen (abenduaren 4koa) jakinarazpena jaso zen; horrek Banakako Arreta Programa onartu zuen. Horretan, aukeratutako zerbitzu gisa aukeratu zen egoitza iraunkorra. Egun batzuk beranduago, jakinarazpen berri bat jaso zen, abenduaren 19koa; horren bidez, zenbait agiri eskatu zizkieten "mendeko pertsonentzako egoitzan egonaldi iraunkorra izateko eskaera zuzentzeko". Hain zuzen ere, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren pentsio-ziurtagiria eta kontuen egoeraren eta banku-tituluen banku-ziurtagiriak eskatu zizkieten.

2016ko urtarrilaren 13an, ilobek idazki bat aurkeztu zuten, Gizarte Ekintzako Saileko Zentroen Zerbitzura zuzendutakoa. Bertan, eskatutako dokumentazioa aurkezteko zailtasunak azaldu zituzten eta, funtsean, hauxe alegatu zuten:

- Eskaeraren titularrak ezin ditu dokumentuak izapidetu, ezta kudeatu ere.
- Abenduaren 28an, bere izekoren ezgaikeza-demanda aurkeztu zen Bilboko Lehen Auzialdiko 14. Epaitegian; oraindik ez da demanda hori ebatzi.
- Ilobak, ezgaikearen kontua ebatzen ez den arte, ez dira bere izekoren legeko ordezkariak. Beraz, ezin dute bere izenean eskatutako dokumentazioa eskuratu.





Bestalde, jakinarazi dute Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzen duen informazio ekonomikoa badagoela beste foru sail baten esku, Ogasun Sailaren esku, hain zuzen ere.

Apirilean, kexagileak Arartekoarengana jo zuen; hasiera batean, horrek egoera hobeto aztertzeko informazio eta dokumentazio osagarriak eskatu zizkion. Aldi berean, apirilaren 21eko Foru Aginduaren jakinarazpena jaso zuten. Horren bidez, eskaera atzera egindakotzat jo zen, eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez zelako. Ebazpen horretan, jakinarazi zen berraztertze-errekurtso bat jarri ahal zela hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ekainaren 3an, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuten; bertan, urtarrilaren 13ko idazkian azaldutako arrazoiak alegatu zituzten eta PFEZaren aitortpena erantsi zuten, urte horretan eginda igorri zitzaiona.

Informazio horrekin, Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailera jo zuen eta galdetu zion espedientea ebazterakoan urtarrilaren 13ko idazkian azaldutako arrazoiak kontuan hartu al ziren. Horrez gain, aurretik helarazitako gogoeta batzuen inguruko balorazioa egiteko eskatu zion.

Uztailaren 27an, sailetik foru agindu hori atera zen; horren bidez, kexagileak aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa onartezina dela adierazi zen, garaiz kanpokoa izateagatik. Irailaren amaieran, erakunde horren erantzuna jaso zen, non argudio berberak azaltzen diren. Eskatutako dokumentazioa eskuratzea eragozten ari diren kausei dagokienez, erantzuten da arauaren 12. Artikulua gogoraraziz (otsailaren 25eko 17/2014 Foru Dekretua). Artikulu horrek adierazten du agiri horiek funtsezkoak direla prozeduraren izapidearekin jarraitzeko.

Gogoetak

1. Erakunde honen asmoa ez da administrazio prozedura arautzen duen legeriak ezarritako epeen ez-betetzea zalantzan jartzea. Izan ere, kexagileak aurkeztutako berraztertze-errekurtsoaren erantzunean eta Arartekoaren erantzunean adierazten den bezala, egia da horretarako ezarritako hilabeteko epea igarotakoan aurkeztu zela. Aitzitik, erakunde honen ustez kexagilearen izeko ahultasun larriko egoeran dago eta hori da erakunde honi interesatzen zaiona. Arartekoaren ustez, gai hau jorrazteko, aztertu behar dira pertsona horrek baimendu behar dituen kudeaketak burutu ezin ahal izateko arrazoiak; arrazoi horiek kexagileak urtarrilaren 13an aurkeztutako idazkian aipatu ziren.
 - a. Eskatutako informazioa pertsonala zen eta ilobek ezin zuten informazio hori eskuratu bere izekoaren baimenik gabe, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa aplikatuz (6.1. artikulua). Horrenbestez, kexagilearen izekok baimena ematen ez badu norbaitek, kasu honetan bere ilobek, errekeritutako ziurtagiriak eskatzeko, ziurtagiriak igortzen dituzten eta fitxategiak dituzten





erakundeek ezingo dizkiete horiek eman; izan ere, horietan informazio pertsonala dago.

b. Aitzitik, egoitza-zentro bateko plazaren eskaeraren sinadurak eta mendekotasun-egoeraren balorazioa egiteko aurreko eskaeraren sinadurak foru aldundiari berari baimena ematen diote ukitutako pertsonaren datuak egiaztatzeko. Bi inprimakietan jasotzen da beren-beregi pertsona horrek baimena ematen diola Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako Sailari, beste kudeaketa batzuen artean, hauek egiteko: "beharrezko kontsulta guztiak egitea Ogasun eta Finantzarako Foru Sailaren fitxategietan eta beste zerga-agentzia batzuei dagozkienetan, baita Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalean eta pentsioak eta beste diru-sarrera batzuk ordaintzen dituzten erakundeetan" eta "datuak eskatzeko eta kontsultak egiteko finantza- eta aurrezpen-erakundeei, bertan izan dezaketen edozein ondasun edo eskubideren gainean". Zentzu horretan, baliogabetu berri den Herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Lege berrian jasotako aurreikuspenen helburuen artean administrazio publikoek dituzten datuak eta dokumentuak ematea saihestea dago. Horregatik guztiagatik, Arartekoaren ustez, Bizkaiko Foru Aldundiak senideek baino aukera gehiago zituen datuak eskuratzeko.

c. Bestalde, epaitegi batean ezgaikeita-demanda jartzean, pertsonak bere zaintzaren eta ondasunak kudeatzearen inguruan gutxienezko erabaki beharrezkoak hartzeko duen gaitasunari buruzko zalantzak dauden egoera aztertzen da. Horregatik, ebazterakoan, pertsona hori hobekien ordezkatu dezakeena eta bere interesak zaindu ditzakeena aukeratu da. Hala ere, aztertzen ari garen kasuan, oraindik ezgaikeita-demanda ebatzi behar da, baina kexagilearen izekok legez gaitasuna dauka administrazio-egintza guztiak burutzeko. Zentzu horretan, eskaera sinatu zuen, baina momentuz ezin du inork bere izenean jardun berak baimentzen ez badu. Hori gorabehera, bere narriadurak zuzenean kudeaketak egitea eragozten dio.

Izan ere, erakunde honek egoera hori nabarmendu nahi du; epaitegiak pertsona horren ezgaitasunaren inguruko erabaki bat hartu arte, eta hala badagokio, legezko ordezkari bat izendatu arte, kontuan hartuta pertsona horrek ezin duela erabakirik hartu, ezta oinarrizko zaintzetarako beharrezko kudeaketak egin ere, bere egoera ahultasun handikoa da. Horregatik, egoitza-zentro batean plaza bat esleitzea premiazkoa da. Egoera honetan, behar adina arrazoi daude Bizkaiko Foru Aldundiak malgutasun handiagoz jarduteko, egoeraren salbuespenezko izaera kontuan hartuz.

2. Argi dago sailak adierazitako araua eraginkortasunik handiena bilatuz ezarri dela, pertsonen beharrak kontuan hartuz eta horien eskubideak bermatuz. Hortaz, oro har, erakunde honek ez du zalantzan jartzen eskatutako dokumentuak aurkeztu behar direnik. Hain zuzen ere, iradokitzen da ahultasun izugarriko egoerak kontuan hartzeko aukera, kasu honetan adierazten dena





bezalakoa. Mendekotasun egoeraren aitortzea eta horren ondoriozko zerbitzuak eta prestazioak arautzen dituen araudiak, baita banakako arreta planak ere, kasu hauetan, egoitza-plaza bat ematea aurreikusten dute. Beraz, hori ez litzateke izango lege-aurreikuspen bat ez betetzea.

3. Azkenik, erakunde honek Gizarte Ekintza Sailaren erantzuna aipatu nahi du, kexagileari behar bezala erantzuteko burututako edo burutzea aurreikusi dituen jarduketari buruzkoa. Erantzun horretan haxe adierazten du, berraztertze-errekurtsoa garaiz kanpo egoteagatik onartezintzat jotzen duen foru aginduaren ostean espedientearen itxita dagoelarik (administrazio-bidea amaitutzat jotzen duena): *"horrek ez du ekiditen beste prozedura bat irekitzeko aukera; hori bidezko eskabidea eginda eta prozeduraren instrukzioarekin jarraitzeko beharrezkoak diren agiriak aurkeztuta ireki daiteke."* Arartekoak azpimarratu nahi du konponbide hau itxurazkoa dela soilik, izan ere, dokumentazioa aurkezteko zailtasunak berberak dira izekoaren ezgaitasunaren inguruko erabaki bat hartu arte eta legezko ordezkariak izendatu arte, beharrezko kudeaketak behar bezala eta legez egin ahal izateko. Horrela, berriz ere, eskaera atzera egindakotzat jo beharko zen, eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik. Are gehiago, interesdunak berak zailtasun handiak zituen eskaera sinatzeko.

Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

IRADOKIZUNA

Egoitza-zentro bateko plazaren eskaera ezestea erabaki zuen ebazpena berrikusteko eta dagozkion kudeaketak egiteko Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eta finantza- eta aurrezpen-erakundearen aurrean egoitza-zerbitzura sartzeko prozeduraren izapidea amaitzeko.

